

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Andrés Isasi Udal Musika Eskola (Getxo)****2019. LEP-aren oinarrizko espezifikoen zuzenketa***Aurrekariak*

Lehenengoa: Ikusi dira Getxoko «Andres Isasi» Musika Eskolako langile finko gisa (musika irakasle) enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuen deialdia arautuko duten oinarri espezifikokoak.

Bigarrena: Akats bat antzeman da lehiaketako faseari buruzko B) oinarriko d) Euskara apartatuko puntuazioan.

Zuzenbideko oinarriak

Lehenengoa: Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ezartzen duenez, administrazio publikoek beren egintzetan dauden akats materialak, egitatezkoak eta aritmetikoak edozein unetan konpondu ahalko dituzte.

Bigarrena: Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 98.4 artikulua honako hau ezartzen du: «Hautaketa probetan inolako hizkuntza eskakizunik bete beharrik izango ez balitz, euskaraz jakitea merezimenduztat hartuko da. Horren balioa lanpostuaren Kidego edo Eskalak bete beharreko lanpostuei izendatutakoaren artean nagusi den hizkuntza eskakizunaren eretzean neurtuko da, eta horren heinekoa ez da inoiz ere aukeraketa-aldi guztian lortu daitekeen gehienerako puntuazioaren ehuneko bostetik beherakoa, ez eta ehuneko hogeitik gorakoa ere izango».

Hirugarrena: Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 31.1. artikulua. Honako hau xedatzen du:

1. Bai langileak aukeratzeko, bai lanpostuak betetzeko, euskara ezagutzea meritu modura hartzerakoan egin beharreko balorazioa, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 98.4. atalean ezarritakoaren arabera izango da. Hautaketa-prozesu osoan guztira eta gehienez jota lor daitekeen puntuazioa aintzakotzat hartuta, euskararen ezagutzari emango zaizkion ehunekoak ondorengo hauexek izango dira, ez txikiagoak, ez handiagoak:

1. eta 2. hizkuntza-eskakizunak - %5etik %10era.

3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak - %11tik %20ra.

Eta indarreko legediak ematen dizkidan eskumenen arabera

EBATZI DUT:

Lehenengoa: Zuzentzea «Andres Isasi» Musika Eskolako langile finko gisa (musika irakasle) enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuen deialdia arautuko duten oinarri espezifikoen B) Oinarriko (lehiaketa fasea) d) apartatuko lehenengo paragrafoa, jarraian adierazitako terminoetan:

— Honako hau jartzen duen lekuan:

d) Euskara: Hizkuntza eskakizuna egiaztatzea derrigorrezkoa ez den lanpostuetan, euskararen ezagutza honako baremo honen arabera baloratuko da:

- Administrazio HE1 edo baliokidea: 4 puntu.
- Administrazio HE2 edo baliokidea: 4 puntu.
- Administrazio HE3 edo baliokidea: 6 puntu.
- Administrazio HE4 edo baliokidea: 6 puntu.



— Honako hau jarri behar du:

d) Euskara: Hizkuntza eskakizuna egiaztatzea derrigorrezkoa ez den lanpostuetan, euskararen ezagutza honako baremo honen arabera baloratuko da:

- Administrazioko HE1 edo baliokidea: 4,8 puntu.
- Administrazioko HE2 edo baliokidea: 4,8 puntu.
- Administrazioko HE3 edo baliokidea: 10,56 puntu.
- Administrazioko HE4 edo baliokidea: 10,56 puntu.

Bigarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, www.getxo.eus webgunean eta Getxoko «Andres Isasi» Musika Eskolako iragarki-taulan argitaratzea, eta deialdi honetako hautagaiei nahiz kalifikazio-epaimahaiko kideei jakinaraztea, beharrezko ondorioak izan ditzan.

Getxon, 2019ko urriaren 2an.—Getxoko Andrés Isasi Musika Eskokako Tokiko Erakunde Autonomoaren Presidentea